

GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

36. zk. 1995eko abendua

geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27




3 URTE bete dugu



**Gabonetako
haurrentzako
parkeak**

**UPV oskarbi
voley taldearekin
hizketan**





kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA

HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

**Zuzendaria:**

JOSU KINTAS

Erredakzioburua:

XABIER ZABALETA

Erredakzio-batzordea:LEIRE LOPEZ DE
ABERASTURI

ASIER PEREZ DE KARKAMO

SUSANA CALLEJA

ITZIAR MTZ. DE SANTOS

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:

ALEX BADILLO

ASIER PEREZ DE KARKAMO

Itzultzailea:

IÑAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:

IÑIGO SARASOLA

Marrakziak:

AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:

EDORTA SANZ

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA OLALDE

DAVID AGUILAR

JOSEBA UNZALU

Kolaboratzaileak:

TXIPI ORMAETXEA

JUANJO JOSE KASTRESANA

IÑAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

KARLOS ETXENASIA

INPRIMATEGIA:GERTU KOOP. E.
(ZUBILLAGA, OÑATI)

Baiona, Durango, Gasteiz

ZER IKUS DEZAKE oñatiar gasteizko esploradore nekatu batek Baionan?

Ohar daiteke, adibidez, euskal periferiaren esparrua ez dela bakarrik patateroari tokatu zaigun bazterreko lur puxka muttur hau; badela ipar aldera beste bazter ezkutaturik, beste periferia bazterturik; eta Andoain-Lasarte-Iurreta-Miramónen begietara, -euskaradun agerkarien betaurrekoetara, esan nahi baita-, erabat ikustezin sentitu denean, (hain juxtu bere esploradorekeriak zazpigarren alabaren altzoan gertatzen zirelako, eta ez gipuzkoa-euskaldunena-la-ke-más-non-eta-euskaldun-gehienek-bakar-bakarrik-El-Diario-Vasco-irakurtzen-duten horretan) lagunduago-edo sentitu da marginaliaren ertzetan.

Iparraldearekiko zubigintza haur-ohialetan dagoela ere ohar daiteke, eta gogoratu Euskaldunon Egunkariak haren edizio berriari eskatutako agur-artikulu hain zuzen ere ikustezintasun hori salatzen, *politesse* handiarekin itzuli ziotela, "ertzean literaturaz hitz egizak, mesedez" -sekula lehenago halakorik euskaldunonean-. Enfin: ekialdeko erkide eta elekidetaren anai-arrebago sentitu da, haiekin batean euskal jakobinismo ttiki berriaren biktima tikiagoa, baina Jesus-maria-eta-joxe, ez dezagun dramatiza, errebelde xamarra ere bai, egia esan, eta zakua bete umore-egonarri. Holaxe kontuak.

Durango aldera begiratu eta esploradore nekatuak denak urduri somatu ditu, editore zein egile zein itzultzaile azken-momentuko-arazolarri-bat-edo-beste-dela-eta-beharbada-ez-gara-ailegatuko-ka. Joseus, joseus. Patxara apur bat. Feriara astialdirako bazka bila zoazen hori: begira zoli, feriante, belar pila guztiak ez baitira meta. Kubak triste egoten jarraitzen du (Juan Martin Elexpuru, Elkar), Iurretakoak auskalolandiatiak bidalitako azken mezua iritsiko ei da (Elkar, Susa?), Fado baten akordeak ere entzungo omen dira Coimbra aldetik-edo (Juan Gartzia, Alberdania), eta



negu-gabonak Ramónen kaxoi sekretuak - azkenik!- isuritako hamaika pausoen historia horren laurhun orrialdeekin emango ditugu (Saizarbitoria, Erein).

Eta Pamielak poesi liburu askoren promesa egin digu, eta gazte literaturak iraultza ttiki baten testigu eta altxor izkutu askoren ekarle bihurtu zaigu (Anaia, Desclee, Zubia, Auskalo, Branka, Tamaina Tikia), eta luxozko itzulpenak ia argitaletxe guztietan -arreta berezia Igelari, Literatura Unibertsaleko bildumakoei (urtearen ontzaldaketa: Sánchez Ferlosioren Alfanhuí Eskarne Mujiak euskaraturik), eta Asun Garikanori, eta barkatu al didate ez aipatuek.

Eta hori gutxi balitz, hiru gasteizkok: Xabier Etxaniz, Manu Lopez eta Patxi Zubizarretak ("nire kolaborazio espezial-xelebrearekin", dena esan behar bada) gazte literatura gida bat prestatu zuten Floridako Kultur Etxerako, non hogeita hiru liburu euskarazko goxagarri eta izpiriturik alperuena ere literatur zaletzeko modukoak biltzen baitira.

Horra bidaia bi mila eta berrehun karakterretan: Baiona, giro ona: Durango, fandango... Eta geu-gasteiz, zeren eta: Gasteiz gu ere bada. Geu ere bagara Gasteiz.

GERARDO MARKULETA

gasteizko euskaldunon aldizkaria

Pedro Asua, 2 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:



6.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92

GEU GASTEIZEK ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

ZKIA: _____ Pisud: _____

kalea mintzo Gabonak



GAINEAN DITUGU Gabonak, eta hurbiltzen diren bitartean gogora datozkigu jai hauetako zenbait topiko: Olentzero, opariak, turroia, Erregeak, familia-afariak, elurra... Baina, sarri askotan, kontsumoa bera izaten da egun berezi hauetan hirietako ezaugarri nabarmen edo bistakoena. Hala eta guztiz ere, iristear dauden urteko gau luzeenak badute xarma berezirik eta aproposak izanen dira maite ditugun gertuko zein urrutiko lagunez pentsatzeko.

*Zer iritzi duzu Gabonei buruz?
Opariak Olentzerok edo Erregeek?*

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu

Bertsoak

Zorioneko jostailuak

EGILEA:

Andoni Rodriguez

DOINUA:

mutil koxkor bat itsu aurreko

GURASOAK:

Gabon hauetan nire umeak jasoko du paketea lazo ederrez apaindurikan eta sorpresaz betea. Zer oparitu hara galdera guraso denen nekea, asko pentsatuz erabaki dut zer den guretzat hobe: erosiko dut jostailu on bat, ona ta hezitzailea.

SEME-ALABAK:

Gabon egunez goiz jaiki eta jostailuen bila noa. Zuhaitz azpian aurkitzen dira pakete haundi mordoa arin zabalduz pentsatutzen dut: "pistola dut gustokoa", ta oparia ikustatzean hau bai desilusia. Jostailu honekin inor hiltzerik bai dela ezinezkoa.



PEDRO MONTOYA
irakaslea

1.- Oso egun aproposak dira urtero zer edo zer ospatzeko. Gauza berezi askorik ez dut egingo: afariak, Inozenteen eguna...

2.- Nik nahiago dut Olentzero baina nire familiarentzat biak dira baliagarriak.



Bejondeigula !

Duela hainbat hilabete handitu egin genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berriro ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jasoko. Pazientzia izan!

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu**

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

Ederki
argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideoa industriala
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85



IÑAKI RUIZ
postaria



J. BARCENA
hostalaria



CARMEN GUTIERREZ
jubilatua



M^{re} DOLORES DE
SANDE
jubilatua



XABIER BERGARA
saltzailea


1.- Eguberriak beharrezkoak dira. Egun horietan guztiok egin ohi ditugun gauzak egingo ditugu: elkarri opariak egin, afariak...
2.- Egia esateko biak. Gauza batzuk Olentzerok eta Erregeek gainontzekoak.

1.- Gabonetan urteko beste egunetan baino gehiago egoten gara familiarekin. Gauza berezirik? Ba, Gabon Zaharra besterik ez dut ospatzen.
2.- Nahiz eta opariak Olentzero egunean egin, Errege Eguna ere urtero ospatzen dugu.

1.- Festa alaiak dira, batez ere, familiarekin egoteko aukera duzulako, nahiz eta familia elkartzea gero eta zailagoa den. "Torrijak" prestatzea izaten da gauza berezietako bat.
2.- Betidanik Errege Eguna izan da aukeratu duguna eta horrela egingo dugu aurten ere.

1.- Eguberriak oso politak dira. Batez ere, bakari gozo-gozoak egiten ditugu.
2.- Guk beti Errege Eguna ospatzen dugunez, uste dut horrekin jarraituko dugula.

1.-Ezer berezirik ez. Ohiko bazkari eta afariak besterik ez, inposatutako jaia delako.
2.- Nire etxean beti Olentzero ospatzen da.



Azaroko erantzunak

1. Mateo Mujika
 2. 1861an
 3. Koartangoko Arana
- Irabazleak**
Purificacion Martin,
Maria del Mar
Aparicio eta Alberto
Martinez

ARABA gure lurra



Sail honetan sariak izango ditugu. Erantzunak baldin badakizkizu, bidali postal batean (zenbat eta orijinalagoa hobe). Zinemarako txartelak irabaz ditzakezu.

1. NON JAIO ZEN BRUNO VILLARREAL JAUNA?
2. ZEIN URTETAN IZENDATU ZUTEN GASTEIZ EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO HIRIBURU?
3. NOR IGO ZEN LEHENGO ALDIZ GORBEIA MENDIRA KOTXEZ ?

GURIDI

SAMAVIEGO



elkarri zketak guztion laguntza behar du

Gero eta gehiago dira Euskal Herrian bakea lortzeko biderik egokiena elkarri zketeta eta akordioa direla uste dutenak

3.000 bazkide baino gehiago dituelarik **elkarri** gizarte mugimendua lanean ari da egunero asmo hori egia bihur dadin.

baina ez da nahikoa

Elkarri zketak guztion laguntza behar du.
Zuk ere laguntzeko aukera duzu.

elkarri

Moztu kupoi hau eta helbide honetara bidal ezazu:

elkarri, Poeta Lizardi enparantza 2, tarteplanta. 20400 Tolosa

1. ☐ Bai, **elkarri**ren laguntzailea izan nahi dut.
Hileroko kuota (14 kuota urtean):
☐ 1.300 pzta ☐ 2.000 pzta ☐ 5.000 pzta ☐ 10.000 pzta
Aportazio bakarra:
☐ 10.000 pzta ☐ 25.000 pzta ☐ 50.000 pzta ☐ 100.000 pzta
(Laguntzaile guztiek **elkarri** eta **elkarrikasi** aldizkariak dohainik jasoko dituzte)

2. ☐ Bai, **elkarri** (hilabetekaria) eta **elkarrikasi** (trimestrala) aldizkariak etxean jaso nahi ditut.
Ordaintzeko era:
☐ 4.000 pzta (urtean behin) ☐ 1.000 pzta (3 hilabete behin)

3. ☐ Bai, **elkarri** gizarte mugimenduari buruzko informazioa jaso nahi dut (kasu honetan ez itzazu bete bankuari buruzko datuak)

Izena	Abizenak
Helbidea	Herria
Herrialdea	Posta kodea
Telefona	
Banku edo aurrezki kutxa	
Sukurtsal helbidea	
Sukurtsal zkia	Kontu zenbakia

Alvaro Gle

NOLAKO IDAZKERA HALAKO IZAERA

Alvaro Glez. de Galdeanoren itzala Indurainenaren parekoa ez bada ere, gero eta ezagunagoa da txirrindularitza-zaleen artean. Izan ere, Euskadi taldean ari da bere anaiarekin batera. Beraz, dagoeneko, mundu profesionalean murgilduta ikusten dugu Alvaro, eta, hori dela eta, pentsa genezake lehiakortasuna eta konpetizioa gustoko dituela, edo gutxienez ere, lehiatzeko gaitasun berezia daukala. Halere, ez dirudi horrela denik, bete-betean behintzat. Bestela esanda, Alvarok nahiago luke, seguru asko, kirolak besterik gabe praktikatzea, hau da, kirola egitea gogo hutsagatik. Atsegin du ura, baina ez zaio gustatzen itsasoan sartzea.



*Jeu Gasteizko ikasleak
eta euskadi taldeko
barkidei, auzo bakoitz
bait.*
[Signature]
9-X-95

EGIA ESAN, gaur egun lanbide arlo guztietan nagusi dugu lehiakortasuna, eta kirol-munduan bereziki, "arrakasta gosea" bezalako hitzak gero eta gehiago erabiltzen direlarik. Alde horretatik, ezin da esan Alvaro lehiatzaile onena denik. Nolanahi ere, baditu bestelako doaiak. Duen eztanda-abiadura ez da makala eta igotzen ere ondo moldatzen da. Erlojuaren kontrako

lasterketetan aldiz, behera egiten du. Nire ustetan, horrelako probetan agertzen duen errendimendu eskasa ez datza gaitasun fisikoen ezan, baizik eta kontzentrazioan. Erlojuaren kontrako probetan erabakiorra da erabateko kontzentrazioa mantentzea proba osoan zehar.

Askotan, kontzentrazioa da, alegia, txirrindulari onen eta txapeldunen artean aldeak markatzen duen ezaugarria. Beraz, kon-

geu gasteiz
aldizkaria

**PUBLIZITATEA
TARIFAK**

*zure publizitatea...
euskaraz*

**Barruko orrialdeak orrialde
osoa**

18 modulo: (3 x 6) 30.000 pta.

orrialde erdia

9 modulo: (3 x 3) 15.000 pta.

Bestelako moduloak

modulo 1: (1 x 1) 2.000 pta.

2 modulo: 5.000 pta.

(2 x 1 edo 1 x 2)

3 modulo: 5.000 pta.

(3 x 1 edo 1 x 3)

4 modulo: (2 x 2) 7.000 pta.

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea

Tfno: 13 18 55

01005 - GASTEIZ

L. de

tzentrazioa hobeto landu eta kontrolatzen badu emaitza hobeagoak berehala etorriko dira.

Bere portaera, bai bizikleta gainean, bai eguneroko ekintzetan ere, ez da aktiboa, hau da, ez du lehenengo urratsa ematen itxaroten ondo baino hobeto baitaki. Hori ere doaia izan daiteke, nahiz eta berarekin gustatuta dauden neskak iritzi berekoak ez izan. Besteak nola mugitzen diren ikusita ondo daki Alvarok nola aprobeixatu une egokia. Zestapuntako jokoaren antzera, batzuetan kontua ez da indarra egitea baizik eta kanpotik datorren indarra bideratzen eta erabiltzen jakitea. Bestaldetik, berriz, ezin ahaztu, berez lotsatia dela eta asko kostatzen zaiola egoerak sortaraztea.

Amaitzeko, esan daiteke diplomaziaz jokatzeko ondotox dakiela. Jende guztiarekin ondo moldatzen saiatzen da. Hondartzan baino mendian ibiltzea du gustoko (berde eta harrien arteko kontrastea eta baso-soilak) eta jakitun da ekologiak eta ingurugiroak daukan garrantziaz. Gainera, imaginazio eta irudimen handiko gizona da, ameslaria eta abstrakzioaren zentzua ongi menperatzen duena, marraztea gustatzen ez zaion arren. Geroan lanbidea aldatuz gero saltzailearena oso egokia izango luke.

Iñaki Gauna



AZAROAK 4, larunbata. Eguzkiak ere, bere osotasunean izan arren, zerua iluntzen zuela zirudien. Aste guztiko "bonbardaketaren" ondorioa. Halakoxea izan baitzen astea izan ere.

"Atila" omen zetorren, bere "barbaroak" hartu eta Gasteiz suntsitzera. Ez omen zuen harriarik harri gainean utziko. Hiriko agintariak ere, beldurak asaldatu eta edo, aholku iturri mamitsuak bilakatu zitzaizkigun. Zentzuzkoena, ateak itxi eta alde egitea omen zen, hiritarren bizia bera ere arriskuan baitzegoen...

Hala eta guztiz ere, bazen biztanlegoa lasaitzeko adinako arrazorik ere: "Atilaren" barbaroei aurre egin asmoz, behekaldeetik "Erromako Lejioak" omen zetozen, ileak moztu eta giza itxura beldurgarriarekin. Bazen zerbait...

Dena den, Gasteizko hiritar "bakeza-lea" ez zegoen gustora. Haizeak berak ere, halako gerra irrintzi bat zeramala zirudien bere hegoetan. Gauetako ametsetan ere hiri guztia sutan kiskalita azal-

BARBAROAK GASTEIZEN

tzen zitzaien. "Atilatarrak", ordea, txanpainatan blai. Ez zen nolanahiko astea bilakatu, ez.

Eta iritxi zen! Larunbata, azaroak 4. Iritxi zen bai. "Barbaroak", arratsaldean hiriaren sarrera guztietan barne agertze-koak omen ziren. Eta gertatu ere halaxe. Milaka eta milaka gudari, hiri baketsu eta sakratua zipriztinduz, kaleetan zehar. Eta hau gutxi balitz "Lejionarioek" huts! Nolako panorama! Agur Gasteiz!

Aurrez hutsik zegoen hiriaren erdigunea zaldi harroz eta gizon "bizartsuz" gainezka zegoen. Oihu eta kasko hotsen oihartzunak irentsi zuen Euskadiko hiri-burua. Etxeetako biztanle ezkutatuak, pertsianak ere behearaino jaitsita zeuzkaten.

Eta halaxe ordu pare bat, suntsituta, erreta gelditu behar zuen Gasteiz isiltasuna berreskuratu bitarte. Are eta leihoak, piskanaka-piskanaka bere ahoak zabal-tzera zihoazen... eta hura harridura...! "Barbaroen" arrastorik ere ez....!

- Ene...! Nire bitxidenda osorik dago...
- Eta Banku hura ere kristalak hautsi gabe...
- Taberna hori zabalik dago...
- Irabazi dugu! Inozoak! Ondo pentsatu baina gaizki ateratu zaizue. Exenplu bikaina eman dizue Euskalerriko gazteri eredugarriak.

Zorionak JARRAI eta jarraitu horrelaxe, tinko. Onenak zarete!

Abel Enbeita

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

«EZINEZKOA DA ZORIONTSU IZATEA»

Lorena Saenz

❑ Euskaltasunean lagun dugu Lorena Saenz Garcia Gasteizko Adurtzan. Dendari da udaberriaz gero eta eguneroko ogia saltzen digu. Bere dendan euskaraz bizitzeko aukera dute ingurukoek, Lorenak euskaraz dakiela jakinez gero, alegia.

❑ Gasteizen jaio zen. <1.975eko irailaren 5ean. Hogei urte ditut>. Baina gazteago ematen du. <Ume aurpegia dudala esaten didate>. Eta ez da gezurra. Virgo da horoskopoparen arabera baina ez alferrik! Tartean-tartean besterik ez du irakurtzen.

❑ Arabakoa du aita, hala zuen ere ama, gasteiztarrek ez izanagatik. <Aita Orturikoa eta ama Apellanizkoa>. San Cristobalen bizi da, euskaldun gutxi dituela inguruan. Dena den, ez du auzoa behar bezala ezagutzen. <Ez naiz han egoten; beti erdialdera>.

❑ Ikastolan ikasi zuen euskaraz. <Zein ikastolatan? Hori ez dut esango!>. Administrazioa ikasi zuen arren, dendari. <Ez dago beste lanik. Orain dendari naiz, gauza hobeago bat aurkitu arte>.

❑ Ama zendurik, aitarekin eta ahizparekin bizi da, gaztelaniaz. <Etxean bi ahizpek besterik ez dakigu eta gaztelaniaz hitzegiten dugu guk ere elkarrekin>. Zer ikusi, hura ikasi dute Lorenak eta hamahiru urteko ahizpak.



Duzun biziorik handiena?

Bazkalondoko lokamutsa, siesta.

Eta bertutea?

Optimista naizela.

Famatu ezagun baten izena eman behar bazenu?

Pablo Laso.

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Bakea munduan; eta berekoi-keriarik ez.

Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria ala Vitoria-Gasteiz?

Vitoria-Gasteiz.

Jeniorik bai al duzu? Erraz haserratzzen zara?

Ez, kostatzen zait.

Zein duzu momentuko kezkarik handiena?

Lana.

GEU elkartearen berririk bai?

Ez.

GEU GASTEIZ aldizkaria ezagutzen zenuen?

Ezta.

Egunkariren bat?

Correo, Egin, Deia...

Telebista programarik?

'Farmacia de Guardia'.

Oporrak non eta zertarako?

Gasteizen edo Gasteiz

inguruan. Deskantsatzeko.

Etxeko lanak noren kontura?

Hiruron artean banatzen dugu lana.

Jaki goxoren bat.

Entsalada rusoa.

Filmeren bat?

'La Misión'. Bi aldiz ikusi dut.

Aktore izenik?

Imanol Arias.

Txikitako oroitzapenik?

Lagunekin jolasean Estarroman. Lagun batek etxea du herri horretan eta batzuetan hara joaten gara oraindik.



HegoAmerikako
jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat

- Musika eskola
- Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

Gizarte arloan, zer aldatuko zenuke?

Batzuek diru asko daukate eta beste batzuk gosez hiltzen ari dira. Hori aldatuko nuke.

Munduan den denbora guztia izanez gero, zer egingo zenuke?

Jendeari lagundu, zaharrei, problemak dituzten gazteei eta abar.

Liburu gomendagarriren bat?

'Marianela', Benito Pérez Galdósena.

Nolako izan beharko luke zure bikote lagunak?

Atseгина, jatorra, ona. Ona izatea zer den? Ondradua. Ez esatea: <Hemen nago ni eta etxe honetan neuk agintzen dut!>.

Zer zinateke dendari ez bazina?

Administraria, edo idazkaria edo...

Non biziko zinateke Gasteizen biziko ez bazina?

Inguruan; edo Euskal Herrian.

Zer da Gasteizek duen onena?

Lorategiak, parkeak...

Nolako litzateke mundua emakumeek gobernatuko balute?

Beharbada, berdina.

Zer da 0.7? 0.7?

Bazkalondoan, lokamutsa baino lehen, fruta ala pastel gozoa?

Fruta: mandarinak, laranja, sagarra... Fruta guztia gustatzen zait.

Zenbat denbora ematen duzu ispiluan etxetik irten baino lehen?

Bost bat minutu edo.

Zoriontsu izateko sekretua?

Ezinezkoa da zoriontsu izatea, gauza txar asko gertatzen da baten inguruan.

Zigarroa bai?

Ez.

Meza?

Batzuetan.

Txiste bat?

Oso txarra naiz txiste kontatzen.

Miel Anjel Elustondo



Geu Gasteiz, Zorionak!!

ESKUTAN DUZUN aldizkari honek hiru urte bete ditu jada sortu zenetik. Zorionak! Hazten joan ahala, hobekuntza zenbait sartu izan ditugu aldizkarian eta bide horretan jarraituko dugu hemendik aurrera ere. Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuegu Gasteizen aldizkari eukaldun bat izatearen ametsa errealitate bihurtzen lagundu diguzuen guztioi, eta bereziki, orrialdeotan iragarkiak jarri dituzuen komertzio-etxeei.



geure txaloa

Espainiako Posta eta Telegrafoen erakundeak Zerbitzuen Katalogoa argitaratu du euskara hutsez! Katalogoak dituen 28 orrietan erakunde honek bere bezeroei eskaintzen dizkien zerbitzuen berri ematen da euskara jatorrean. Zorionak, beraz, eta jarraipena izan dezala.



geure kaxkarrekoea



Badirudi Arabako Garaio *parquean* dagoen seinale horren zuzenketa egiteko gogorik ez duela Diputazioak edo, behar bada, ez da konturatu gaizki dagoela. Irakurle batek jakinarazi digunez urte mordo daramatza egoera tamalgarri horretan.

Hemendik aurrera atal honetan euskararen alde egiten dena txalotzeko eta kontra egiten dena salatzeko aukera izango duzu zeuk ere 22 21 53 telefonora deituz edota gure helbidera idatziz: Pedro Asua, 2-3.a



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA
S. Fco. Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua



Oporrak ondo aprobetxatzeko

Zezen mekanikoa, har erraldoia, motorrez ibiltzeko zirkuito handia, Afrikako oihanaren zati-txo bat,... Hau guztiau eta gehiago aurkituko dute haurrek Mendizorrotzako Gabonetako Haurrentzako Parkean (GHP) opor guztietan zehar. □



OLENTZEROK edo

Erregeek egindako oparien zain egoteak, eta etxeko zein kaleko egun hauetako giroak, oso bereziak bihurtzen ditu Gabonetako oporrak eta GHPa pilatutako urduritasun guztia uzteko lekuri aproposena izan daiteke edonorentzat: umeen neurrira egindako jostailua eta gurasoen aliatua.

Abenduaren 26tik eta urtarrilaren 7a bitartean urduritasun guztiak ahazteko bezalako jolastoki erraldoia aurkituko dute haurrek eta helduek Mendizorrotzan.

Pabiloi guztia eta aparkaleku osoa hartuko duen karpa batean betiko jostailuak (zezen mekanikoa, eskalestrik-a, motorrak,...) joku berriak eta lehiaketak topatuko dituzte bertara joaten direnek; baita Gasteizen sekula ikusi gabekoak ere: har erraldoia, oihan bat, edota irratikontrolaz dabilzan itsasuntziak. Eta gurasoak lasai gera daitezzen hogeiren bat begirale egongo dira umeen esanetara.

Haurrak bertara sartu eta jolas toki handia baino ez dute ikusiko; helduek, ordea, zerbait gehiago aurkituko dute arretaz

Abenduaren 26a eta urtarrilaren 7a bitartean abian egongo da Mendizorrotzan

begiratzuz gero. Intolerantziaren aurkako urtea da 1995a. Hau eta hori izango da GHPren norabidea zehaztuko duen ideia nagusia. Dekorazioak garrantzi handia izango du. Horri esker, mundu zabaleko hainbat txoko agertuko zaizkigu Mendizorrotza aldean eta oso urrun ditugun herrietatik bira bat emateko aukera

GARNICA



FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

izango dugu. Manhatango kaleak motorrez zeharkatuz hasi eta, hainbat herri igaro ondoren, beheraxeago, Hegoamerikan, har erraldoi bat ikusteko parada izango dute. Handik Afrikako oihanera eta Europa zaharreko gazteluetarainoko jauzia egin ahal izango da.

Gurasoak ere ez dira aspertuko, seme-alabek egindakoari begira egon ala trivial haundi batean parte hartzeko abagadunea izango baitute. Bertan, bost kontinenteei buruzko galderak erantzunez gure munduari buruz dakitena erakutsiko dute.

Intolerantziaren aurka lan egiten duten taldeen laguntza izango dute antolatzaileek aurten, hala ere, haurrei ez zaie kanpaina argi bat erakutsiko. "Ez dugu ageriko kanpaina egiteko asmorik. Haurrekin ez da horrela lan egiten, helburuak lortzeko ez zaizkie aurrean kartelak jarri behar. Egia esan, heziketa normalduago edo orekatuagoarekin ez zen horren beharrik egongo" esan du Pili, Ludolaneko kideak.

Udalaren Kultura eta Kirol sailak dira GHParen antolatzaileak eta 14 milioi pezetako aurrekontua izan dute horretarako. Baina prestaketa lanak nork egingo dituen erabakitzeke lehiaketa publikorako deialdia egin zuen Udalak. Ludolanek irabazi zuen eta egun antolaketaren azken zehaztasunak prestatzen dabilta buru belarri.

Edozer gauza, ez

Umeekin luzaro lan egiteak ematen duen esperientzia oinarriturik gaztetxoek gustoen gainean mintzatu da Pili: "Guri oso ikusita daudela iruditzen zaizkigun jolas eta jostailuak nahi izaten dituzte beraiek: zezen mekanikoa, autotxokeak, ... Eta horiek ekarri dizkiegu, baina baita beste batzuk ere". Argi dagoena da haurrak ez direla minutu erdi batez ere geldirik egoten: "Tailerretara hurbiltzen dira, baina minutu pare bat egon eta segituan joaten

dira beste zerbaitetara".

Haurren gustoei kasu egiteak bere muga dauka hala ere. "Badaude errealtate birtualean oinarritutako jolasak, borrokak-eta irudikatzen dituztenak. Oso modan jarri dira eta gaztetxoek gustokoak dira, baina guk horiek ekartzea planteatu ere ez dugu egiten. Ez, eta kitto."

Tolerantziaren urtea dela eta ez dela, Ludolaneko arduradunek aipatu duten puntu bat azpimarragarria da: umeek ez dute inolako arazorik ematen normalean.

Tolerantzia-urteak ere lekutxo bat izango du parkean



Gustora eta zintzo egoten dira. Gurasoei buruz, aldiz, ezin gauza bera esan: "Argi dago arazorik baldin badago gurasoekin izaten dela, ez dituztelako iladak errespetatzen edota "nire haurrari ez diote kasurik egin" esanez kexaka agertzen direlako". Adi beraz, gurasoak!

Leire Lopez de Aberasturi

Gabonetako haurren parkea

- ☐ Mendizorrotzan abenduaren 26tik urtarrilaren 7ra arte, 5 eta 14 urte bitarteko haurrentzat.
- ☐ Ordutegia: Goizean 11etatik 2ak arte. Arratsaldean 4retatik 8:30ak arte

Saio bereziak:

- ☐ 2 eta 5 urte bitartekoentzat: abenduaren 30ean eta urtarrilaren 1ean eta 5ean, 11etatik 12:30ak arte
- ☐ Helduentzat, 14 baino gehiagokoak: abenduaren 28an eta urtarrilaren 7an, arratsalde osoz.

400 pertsona, ordu t'erdiko txanda bakoitzeko.

Sarrera: 100 pztza

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

HEGOALDE
euskaltegia



Florida kalea
58 behea

tfnoa 28 41 96

01005
GASTEIZ

BERE LEHEN KANTALDIA ESKAINIKO DU ABENDUAN BAGARE EUSKALTOKIAN

Karlos Subijana: Zuberoako ahaideak Gasteizen

gasteiztar honen bizimodua ezin uler daiteke musikarik gabe. Gaztetandik hasi zen txistuarekin eta orduz geroztik musikaz inguraturik bizi izan da. Egun musika irakaslea da; alboka, txirula eta txalaparta eskolak ematen ditu San Antonio kalean dagoen Udal Folklore Akademian. Eskolako orduetatik kanpo, berriz, aspaldiko urteetan ari da tokiz-toki musika emanaldiak ematen. Berak aitortu digunez, batez ere hirietatik deitzen dute eta xirula eta ttuntunarekin ibili ohi da albokarekin baino gehiago. Hemendik aurrera, musika egiteaz gain, kantak ere botako ditu.



Noiz sortu zitzaizun musikarako zaletasuna?

Instrumentu bat jotzen ikasten hamar urte nituela hasi nintzen, orain dela hogeita bi urte. Hemen, gehientsuenak bezala, txistuarekin hasi nintzen. Denbora gutxira konturatu nintzen ez nuela gogoko instrumentu hori eta xirularen ordeztatu nuen. Hiru zuloko xirularekin hasi nintzen eta, beraz, teknika aldetik ez zegoen txistuarekiko alde handiegirik. Gainera, txis-

tua balitz bezala jotzen nuen. Baina xirularen soinua entzun nuenean ohartu nintzen niretzat askoz politagoa zela. Modu horretan hasi nintzen xirularekin. Geroxeago jakin nuen Zuberoan bazela xirula jotzeko estilo berezi bat. Ni garai hartan asko ibiltzen nintzen Zuberoan, hango bizimodua eta musika oso atsegin ditudalako. Hantxe ikasi nuen txirula ondo jotzen. Xirulaganako zaletasuna bere soinuatik sortu zitzaidan eta erreperorioa-rengatik ere bai.

Eta alboka jotzen non ikasi zenuen?

Alboka nire kabuz ikasi nuen hasiera batean behintzat eta gero albokari zaharrekina batera joaz ere bai.

Non aritu izan zara gehienbat?

Urte asko daramatzat musika emanaldietan eta leku askotan ibili naiz; Gasteizen askotan eta iparraldean ia leku guztietan. Zuberoan kanpoko txirulari batek jotzea

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



IRUNA
TABERNA
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

zure euskal
LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
2errikoia

ez da betere erraza eta ni asko aritu naiz inguru haietan. Oso gutxi, berriz, Bizkaialdean. Ez dakit zergatik. Behar bada, hor badaude musikariak eta eta ez dute hemengoen beharrik.

Emanaldietara beti bakarrik joaten zara?

Emanaldi txikietara, txirularekin-eta noanean, bakarrik joaten naiz. Albokaria-ekin joaten naizenean, ordea, panderojole bat etortzen da nirekin, baina gehienetan bakarrik. Askok gustatzen zait bakarrik ibiltzea.

Orain dela gutxi, ordea, proiektu berri batean sartu naiz. Halako "fusio musika" egiten duen talde batean hain zuzen. Egitasmo berezia da oso. Musika, dantza, bideoa biltzen dituen emanaldi erraldoia da. Lan horretarako leku ugaritako jendea elkartu gara: Hungariako perkusionista bat, Bordeleko txirulari bat, Hendaiako saxojole bat, Bizkaiko dantzari bat... Saxoa, trabeskako txirula eta beste tresna klasikoekin batera nik alboka eta xirula jotzen dut. Emanaldi hauetan, musika entzuteaz gain, dantza klasiko eta garaiki-dea ikus daiteke eta bideoa ere nahasten dugu. Ikuskari erraldoi bat da.

Orain kantatzen ere hasiko zara, ez da?

Kantatu egingo dut, baina xirula eta ttuntuna tartekatuz. Hilaren 14an egingo dugu estreinaldia Bagaren. Beti izan dut taberna eta leku txikietan jotzeko gogo, giro goxo batean gitarra baten laguntzaz aritzekoa. Ikusiko da zein harrera egiten dion jendeak. Izan ere, gu beti tabernatara mozkortzera joaten gara eta musika egon arren ez dugu entzuten.

Nolako kantaldia izango da?

Gitarrajole baten laguntza izango dut eta Zuberoako abesti zaharrak kantatuko ditut gehienbat: pastoraletako abestiak Etxaunen letraren bat, Niko Etxarten bes-teren bat eta tradiziozko kantak. Nik ez dut letrarik egin, ez naiz bertsolari ona. Egunen batean egingo dut baina momen-tuz nahiago dut gauza herrikoiak egitea.

Oro har, Zuberoan egiten diren kantaldien antzekoa izango da. Zuberoako kantak edo beraiek esaten duten bezala, Xiberuko ahaidiak xirularekin emanik. Nire emanal-dia oso lasaia izango da eta amaitutakoan, musika eskolako trikitilariak, jendea ani-matu eta giroa apur bat berotzeko saio bat egingo dute.

Kantaldiekin hasteko ilusio handia dut. Banuen aspaldidanik kantatzeko asmoa eta gogoz egingo dut.

Grabaketarik egiteko asmorik bai?

Diska bat grabatzea oso gauza serioa da. Gainera nire musika estiloa ez dago batere promozionatuta eta ez da betere erraza xirula batekin eta horrelako abestiekin diska bat betetzea. Konformatzen naiz xirula jo eta kantatzearekin.


Bestalde, kolaborazio moduan inoiz zer edo zer grabatu izan dut. Badakizu nola izaten diren gauza horiek: "Aizu alboka bat sartu behar dugu hemen" eta horrelako kontuak. Orain, esaterako, Ttakun talde-arekin kontzertu batzuetan alboka joko dut eta inoiz diska atera nahi izanez gero parte hartuko nuke. Baina, diska oso bat nire estiloan grabatzea egun ezinezkoa irudi-tzen zait.

OSTEGUN KULTURALAK

BAGARE ELKARTEAK astero ekitaldiak antolatu ditu aurten udazken eta negu parterako. Ekitaldi hauek ostegun iluntzetan izaten dira eta hel-buru nagusi bat dute: euskaltegi-tako goi urratsetako ikasleei, batik-bat eus-kaltegitik kanpo, esparru euskaldun bat eskaintzea eta euskara ikasteaz gain gauza gehiago egin ditzaketela jakinaraztea.

Ostegunetako ekitaldien artean, beste-ak beste, honako hauek ikusi ahal izango dira: idazleen mintzaldiak eta solasaldiak, musikarien diska aurkez-pen edo entzun-emanaldiak, euskara-ekin loturiko gaiak buruzko ikastaroak, abenturazale, bidaiari, mendigoizale eta abar luze baten isto-riok...

Bagare euskaltokian burutuko dira ekitaldi hauek guztiak eta euskararen munduan zertxobait gehiago murgil-tzeko aukera paregabea duzu honako hau. Beraz, hemendik aurrera ez duzu aitzakiarik. Ostegunero iluntzetan zita bat daukazu Bagaren euskal kulturare-kin. Anima zaitetz!



J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ



BEIRATE
ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

Xabier

musika ona
eta giro ezin
hobea **taberna**
Kutxillera, 23

Foro hiritarra: jarraikortasunaren bila

hiritarren Foroa José Angel Cuerda alkateak bultzaturiko ideia izan da. Ekimen honek aukeratutako gaiak auzorik auzo eztabaidatuak izan zitezela zuen helburu, jendeak hiri erdialdera joan behar izan gabe. Gasteiz osoa auzitan aritzea zen xedea. Horretarako, erakargarritzat jotzen ziren gaien zerrenda luze bat osatu eta jarraian gaurkotasuna eta interesgarritasunaren arabera hautatzeari ekin zitzaion behinbetiko zazpiak geratu arte. Bigarren urratsa hiriko mapa hartzea izan zen eztabaidarako arloen sakabanatze geografikoa egiteko. Azkenik, mugikortasuna erantsi zitzaion Foroaren izaera osatuz.



JASOTAKO ERANTZUNA ez da aurretik espero zen bezain ona izan. Partehartzea uste baino urriagoa izan da, zenbakiak lekuko: aurreneko lau ihardunaldietan, hau da, lehendabiziko 28 hitzaldietan 734 gasteiztar besterik ez ziren Foroaren ekitaldietara hurbildu.

Udalak ez ditu partehartze eskas honen arrazoiak argi ikusten. Foroaren ebaluazio orokorra oraindik egiteke dagoenean, alkatetzatik gaur egun Gasteizen dagoen eskaintza soziokultural handia aipatzen da

Erantzuna ez da espero bezain ona izan

zio posible bezala. Hala ere, lortutako oihartzuna gizarte-etxez gizarte-etxe eta gaiaz gai azertu nahi da ondorio zehatzak atera ahal izateko.

Ildo honetatik, eta beti ere lehendabiziko lau asteetako datuak erabiliz, Iparralde gizarte-etxea izan da jende gehien erakarri duena, Europa zentruak hurbiletik darraio-



PORTAL DEL
REY
GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

ANBOTO

TABERNA JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ



la. Arana eta Ariznabarra auzoetan, berriz, Hiritarren Foroak ikusmin murritza piztu du.

Gaiei dagokienez, datorren urtarrilean indarrean sartuko den epaimahaiaren lege berria izan da interesguterik nagusia bereganatu duena, jarraian HIESa eta Alzheimer gaisotasunak datozela.

Nola edo hala, alkatetza baikor agertu da, oso ahalegin handizat jo izan duelako Foroa, azken finean hitzaldietara joan direnek, asko zein gutxi izan, gogotsu parte hartu dutelako. Areago, Foroa lehen kontaktutzat hartu da hainbat tokitan, non gairen batek sakonki aztertzeo irrika eragin baitu (honen adibide Arana auzoa dugu antisorkuntza gaia dela eta).

Amaitu berri den Hiritarren Foroa udal ekimenaren lehen saiakera izan da eta, aterako diren ondorioen arabera behar diren moldaketak egingo dira hurrengo urteetan ekimen hau gure artean finka dadin.

Edu Lopez de Luzuriaga

Publizitate murritza



OROKORREAN aipa daitekeen hiritarren partehartze eskasak eragin ezberdina izan du aurkeztutako zazpi gaietan eta, beraz, hizlari taldeek baloraziorako abiapuntu diferenteak dituzte. Hala ere, Hiritarren Foroaren aldeko jarrera nagusi da eta ekimen hau errepikatzea begi onez ikusten da. Hori bai, aurtengo akatsetatik ikasiz.

Pello Lopez de Munain Arabako HIESaren aurkako Komite Hiritarreko buruak pozik azaldu da HIESari buruzko hitzaldietara joan den jende kopuruagatik. Hitzaldietan izandako batz besteko entzulego kopurua (40 pertsona inguru) bikoiztu egin da HIESaren gainean egindako Foroan, dena prestatzeko egin behar izan duten esfortzuaren antzera.

Era berean, Pellok mintzaldietara joan direnen partehartze aktiboa azpimarratu du.

HIESaren kontrako Komitearen kritika udalak egindako publizitate urrian datza. Areago, hiritarrak hitzaldien bitartez informatzearen formula zaharkiturik dagoela dio Pellok. "Oso zaila da jendea hitzaldietara etorraztea, bide hau agortuta dago. Bakarrik ospe handiko pertsonaiek erakartzen dute iritzi publikoaren arreta".

Sakabanaketaren desegokitasuna

Tolerantziari buruzko hitzaldiak antolatu dituen 'Hegoa' taldeak ere, publizitate gehiagoren beharraz hitzegiten du. Talde honen kidea den Miguel Argibay-ren esanetan "publizitate gehiago egin beharrenekin batera, aurtun erabili den gai eta tokien dispersioa zuzendu beharko litzateke". Foroa auzoz-auzo eramatearen asmo teorikoari ondo baderitza ere, praktikan hitzaldigune bakarra defendatzen du. "Azken urte laurden honetan elkartasunaren inguruko ekintza ugari egon da eta eremu honetarako entzulego kopurua ez da oso zabala".

'Hegoa' kexati agertzen da, halaber, udalaren prebisio faltagatik, honen eraginez hainbat gauza (esku programak besteak beste) harrapatuta egin behar izan baitira.

Tolerantziaren inguruko hitzaldiek jende gehiegi bildu ez duten arren, Miguel Argibay Foroaren balorazio positiboa egiten du eta hurrengo urteetan errepika beharrekoa dela uste du, beti ere aurtun ikasitakoa kontuan izanik.

GARNICA



Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

mostrongotxoak

Horra, horra... gure olentzero



g

abonak oso hurbil daudenez eta Olentzero, opariak eta turroia burutik kendu ezin ditugunez, Odon de Apraiz ikastolako umeekin hitzegitera joan gara eta beraiek gabonetan ea ezer berezirik egingo duten galdetu diegu. Roberto irakaslearekin matematikak ikasten ari diren arren eta oso gustoko dituztela esan diguten arren, espero dut tartetxoren bat egingo digutela gure galdera honi erantzuteko.

gabonetan ezer berezirik egiteko asmorik bai?



AUKERA IZANGO

banu bidaia bat egingo nuke, oso atsegina delako bidaiatzea. New Yorkera joango nintzateke eta bertako gabonetako giroa ezagutuko nuke, eta jende ospetsua ezagutzea ere gustatuko litzaidake. Bestalde, ez dut turroirik jango, ez zait gustatzen eta.

Lidya, 9 urte

OPORRAK LUZATZEA

nahiko nuke opariekin jostatzeko eta ikastolara

beranduago joateko. Turroi asko jan nahi dut eta batez ere elurrarekin eta nire lagunekin jolasteko asmoa dut. Bizikletaz ere ibili nahi dut.

Jon Ander, 9 urte

GUSTATUKO

litzaideke Olentzerok futbol zelai berri bat egitea, futboleko jolastea oso gustoko dudalako. Horrela, Gabon guztiak futboleko jolasten pasatuko nituzke.

Endika, 9 urte

OLENTZEROK opari asko egitea nahi dut eta egun guztiak opariekin jostaten igaroko nituzke. Bidaia bat egitea ere polita izango litzateke; Port Aventura-ra joango nintzateke ondo pasatzera. Nira osaba, izeba eta amonarekin egotea gustatuko litzaidake.

Jaione, 9 urte

OLENTZEROK

denboraren makina oparitzea nahi dut 2000. urtera joan eta handik

neure burua ikusteko. Etorkizuneko eta martzianoen kontuak oso interesgarriak iruditzen zaizkit. Martera joan eta alienigenen lagun egitea gustatuko litzaidake.

Jon, 9 urte

GABONAK

luzeago izatea eta oporretan etxerako lan gutxiago bidaltzea eskatuko nuke. Nire familiarekin egon nahi dut eta, batez ere, nire lehengusu txikiarekin lo

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24

Tfnoa: 26 06 58

Portal del Rey, 21

Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

egin nahi dut..

Asier, 9 urte

GIMNASIOA eta patioa handitzea gustatuko litzaidake nire lagunekin jolasteko. PINera joango naiz jolastera eta patioan zuhaitz gehiago landatzea nahi nuke.

Hegoi, 9 urte

HERRIRA joatea eta oporrak luzatzea nahi dut. Herrian oso ondo pasatzen dut lagunekin. Egun osoa jostatzen igarotzen dugu. Batez ere walkitalkiekin jolastea gustatuko litzaidake gabon hauekin.

Oier, 10 urte

EGIAZKO zuhaitza edukitzea eta oporrak luzatzea nahi dut. Gabonetan etxeko lanik ez izatea eta PINera joatea da nire ilusioa. Ikastolan egingo dugun antzerkia ondo ateratzea, liburutegia handitzea eta familiarekin egotea ere nahi nuke.

Ekhiñe, 9 urte

HERRIRA joan nahi dut animaliekin jolasteko. Txakurak eta katuak asko maite ditut, baina gehien gustatzen zaizkidanak zaldiak dira. Zaldi on batean igotzea gustatuko litzaidake. Zaldiarekin ibilaldi bat egitera joango nintzateke eta gero edateko ura emango nioke.

Gorka, 10 urte

OLENTZEROREN aurpegia ikustea gustatuko litzaidake, inoiz ez diot ikusi eta. Ondoren berarekin jolastu nahiko nuke eta opari asko

ekartzeko eskatuko nioke. Irakurtzea asko gustatzen zaidanez, batez ere, liburuak ekartzea eskatuko nioke Baina gehien desio dudana Olentzeroren aurpegia ikustea da.

Adrian, 9 urte

TXAKUR TXIKI bat izatea nahiko nuke eta berarekin txangoak eta bidaiak egitea. Bidaiatu egingo nuke eta horrela ez nituzke irakasleak bidalitako lanak egingo. Jolastea nahiago dut lan egitea baino. Hala ere irakurtzea gustatzen zait eta Olentzerori liburu potolo bat eskatuko nioke.

Hugo, 9 urte

GOXOKI asko jatea. Asko gustatzen zaizkit eta gabon guztiak igaroko nituzke gauza goxoak jaten. Nire amonak asko ekartzen dizkit. Gabonetan turroi eta polboroi asko jango ditut. Gehien gustatzen zaidana txokotalezkoa da. Baita piruletak, txupatusak eta txikleak ere.

Iratxe, 9 urte

GABON ZAHARREAN mahatsekin tranpa egitea gustatuko litzaidake. Mahatsak jatea oso gustoko dut. Turroi asko jango nuke, oso ona da gabonetako turroia.

Arkaitz, 9 urte



Umeak zaintzen ditugu

GOIZEZ

Beatriz 22 61 18
Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42

Esther 27 84 57
Imma 24 22 41
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Montse 26 78 12
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85
Arrate 25 64 01 (ostegun eta ostiraletan)



Oihana 25 30 35
Imma 24 22 41
Aintzane 27 09 64
Iratxe 24 51 81
Lorena 27 10 13
Patrizia 27 78 19
Iratxe 24 51 81
Ainara 23 38 28
Leire 23 12 23

ASTEBURUAN

Olatz 25 61 20
Montse 26 78 12
Arrate 25 64 01
Elena 14 37 28
Leire 23 12 23
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Belen 13 65 10
Monica 13 86 40
Itziar 13 86 21
Maria Jesus 13 54 35



JANTZI ETA OPARIAK

Kutxillera, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

San Cristobal auzoa: Hegoaldetik begira

auzo honetan sartu bezain pronto bi gauzek piztu dute gure arreta: lehenengo eta behin bertako kale gehienek Euskal tradizioko musika tresnen izena dutela ohartu gara. Besteak beste, Txistularis, Dultzaina, Alboka edo Dantzari Plaza bezalakoak aurkitu ditugu; bigarrenaz Unibertsitate inguruko eremuetan egindako eraberritze lanak aipatu behar ditugu. Baina kanpoko itxuraz gain, gure asmoa auzo barruko bizimodua ere ezagutzea denez, auzoko elkarteetara jo dugu.



Olarizu Udal Bulegoa.

Lehenenik Olarizu Udal Bulegoa joan gara. Gasteizen geratzen den era honetako bulego bakarra. Lau auzotako bizilagunek parte hartzen dute elkarte honetan: Errekaleor, Aretxabaleta, Adurtza eta San Cristobal. Erakunde honen funtzio nagusia Olarizu inguruan biltzen diren mota guztietako elkartearen arteko koordinazioa egitea da. Beste auzoetan Gizarte Etxeek betetzen duten funtzio bera du Olarizuko udal bulegoak, baina horien aldean badu desberdintasunik: ez dute antolatutako ekintzak burutzeko leku aproposik.

Elkarteko ordezkariak esan digutenez, udal bulego hau desagertzeaz dago, auzo honetan egiten ari diren eraberritze lanen artean, Gizarte Etxe berri bat eraikitzea erabaki baitu Udalak. Hegoalde izango da Gizarte Etxe berri horren izena eta eraikuntza berri horren bitartez egun dituzten toki arazoak desagertuko lirateke.

Hegoaldekoak.

Udal bulegotik atera eta San Cristobal auzoko kaleetan galdezka aritu gara. Hegoaldekoak auzo elkartearen berri eman digu tabernari batek.

**“Azpiegitura-lanak
bukatu ondoren auzo
erosoa izango da
San Cristobal,
bitartean, eragozpenak
dira nagusi”**

Hegoaldekoak da San Cristobal duela bi urte lanean hasi zen auzo elkartearen izena.

Lehenago, duela hamar urte edo, baze- goen auzo elkarte, baina jendea nekatu eta elkarte desagertu zen. Lehenengo etapa horretan, Gasteiz osoan auzo-mugi-



★
IZARRA
TABERNA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



menduak azaldu ziren garaian, elkarte barruan jende dexente zegoen eta auzoan zeuden arazoez arduratzen ziren.

Baina hasierako indarren ondoren jendea nekatu egin zen eta 1985etik aurrera ez da auzoan elkarterik egon. Dena den urte hauetan hutsune hori betetzen zuten beste elkarte edo taldeak sortu dira. Horrela, duela lau urte, gazte talde bat bildu zen eta berriz auzoko festak antolatzen hasi ziren. Hemendik Jai Batzordea sortu zen eta batzorde honek emandako bultzadaz berriz ere auzo elkarte abian jartzeko asmoa sortu zen. Une honetan, bigarren etapa baten hasieran daudela diote elkarteroek: "Auzoko jaiak antolatu ondoren elkarte berriro lanean hasi da"

Hau guztia duela bi urte gertatu zen, eta beraien ustetan oraindik ezin zaie gauza haundiegirik eskatu. Poliki-poliki joan nahi dute, ez dute erretzerik nahi eta momentuz jaiak antolatzeaz arduratuko dira. Dena den jendearengana heldu nahi dute, eta horretan saiatzen ari dira. Ez dute tailerrik edo bestelako ekintzarik antolatzeko beharrik ikusten, horrelako lanetan diharduten taldeak badaudelako auzoan. Auzoko arazoak konpontzeko arlo desberdinetan batzordeak sortzen saiatuko dira: "kanpaina batzuk bultzatzea edo udalera gure kexak azaltzea izango da elkartearen helburua".

Hauxe da momentuz auzo elkartearen lana. Duela bi urte hasitakoa aurrera eramane nahi dute, baina, hori bai, pausoz pauso eta presarik gabe.

Auzoa bera.

San Cristobal Gasteizko hegoaldean kokatua dago eta Adurtza, trenbidea eta Urtiasio industrialdea ditu bere mugak. Auzo zaharra eta azpiegitura aldetik hainbat gabezia dituena da. Laister Hegoalde Gizarte Etxea eraikia egotea espero dute, auzoaren onerako izango baita. "Denok ezagutzen ditugu Gizarte Etxe batek

dakartzan onurak" baieztatzen dute auzokideek.

Auzoak asko irabaziko badu ere, bitartean lanen ondorioz sortzen diren deserosotasun eta oztopoak jasan behar dituzte bertako biztanleek. Bi kasu nagusi aipatu nahi dituzte: batetik, Rioja kalera eramaten gaituen Paso del Duende izeneko tunela. "Denbora gehiegi daramate tunel hau konpontzen eta lehen baino okerrago dago"; bestalde, Herminio Madinabeitia kalean dagoen etxea aipatu dute. Etxe hau Juanma Bajo Ulloak "Alas de Mariposa" filmea egiteko erabili zuen eta andamioez inguratutako dago aspaldian.

San Cristobal bizitzeko auzo eroso dela azpimarratzen dute, eta are gehiago orain egiten ari diren lanak bukatzen dituztenen. Hala ere, ez omen dago auzo kontzientzia haundiegirik.

Arabako Unibertsitate Kanpusak eragin nabarmena du auzoan. Auzo honetan ikasle asko dago eta azken urteetan alokatutako pisuen eskariak gora egin du. Ikasleekin batera, ikasleen beharrak asetzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten denda eta tabernak ere ugartu egin dira. Tabernari batek adierazi digunez, ikasle asko etortzen omen da hamarretakoa egi-

tera edo futbolinean jostatzera. "Orokorrean auzoarentzat oso onuragarria da ikasleen eragina" baieztatzen digute.

Baina Unibertsitateaz aparte San Cristobalen badaude beste eraikuntza azpimarragarri batzuk ere; Udal Artxibategia eta Arabako Artxibategia hain zuzen. K2 kiroldegia ere ezin dugu ahaztu. Gasteizko beste kiroldegietan eskaintzen ez diren zerbitzuak aurki ditzakezu hemen.

Aipatutako Unibertsitate Kanpusaz gain, auzoan ez dago ikastetxerik, eta horrek badu eraginik euskararen erabilpenean; dena den kalean gero eta gehiago entzuten da, batez ere gazteen eta umeen artean.

Amaitzeko auzo honetan ikusi ditugun tabernei buruzko aipamen bat egin nahi dugu. Azken urteetan taberna askotxo zabaldu da auzo honetan eta martxa gutxi toke duenarentzako gune berri bat sortzen ari da bertan. Guk frogatxo bat egin dugu eta gustora egon garenez, inguru hauetara bisitatxo bat egitera gonbidatzen zaituztegu. Hauxe izan da San Cristobalen ikusi eta jakin duguna. Gehiago jakin nahi izanez gero, bertara joatea besterik ez duzu.

David Alvez



Tu Invernadero
Zure lore sortak

ALDABE 6 BEHEA
tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

IRUSTA TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

OSKARBI VOLEY TALDEAK ELITEAN JOKATZEKO ESKUBIDEA ALDARRIKATZEN DU

UPV OSKARBI Lehen mailako neskak



tristea da baina Gasteiztar askorentzat, Alavesa eta Baskoniaz (azkenaldi honetan apuntatzen hasi direnentzat Taugres) aparte, ez omen dago gure hirian eliteko beste talderik. Eta ez da hala. Gasteizko kantxetan izengabetasunean murgilduta dabiltzan makina bat kirolarik, egunero bizpahiru ordu ematen dute, batere sosik kobratu gabe, estatuko talde onenekin borrokan elitean leku bat lortzeagatik.

EDOZEIN KANTXATAN ikus daitekeen kirolik ikusgarrienetarikoa bat dugu voleyballa. Saskibaloiak, eskubaloiak, edota futbolak ez duten bizitasuna dauka voleyak. Erasoak eta defentsak etengabe txandakatzen dira, segundo bakar batzuren tartean, begiak erraz jaso ez dezakeen azkartasunez.

Eta gutako askorentzat sorpresa bada ere, Gasteizek badu emakumezkoen



ohorezko mailan voley talde bat: UPV-Oskarbi. Lehen urtea dute maila gorenean, eta hau hala izanda, atzeneko postuetan ibiltzea normalizat har daiteke. Halere, euskaldunok izan ohi dugun jenioa azaleratzen badute (eta hasiak dira dagoeneko), fitxatutako atzerritarren teknikarekin batera, oso joku maila altua erakusteko gai izango dira. Hala egin zuten Caja Cantabriaren aurka, hain

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Abuztuaren 15a arte irekita
Barra goizeko 7etatik aurrera
Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pzt
Betiko kazuelatxoak



kafetegia
taberna

ALDAPA

SAN VICENTE
aldapa

GASTEIZ



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest

• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldianar • GASTEIZ



desiratutako denboraldi hasieratik hainbeste desiratutako lehen garaipena lortuz; eta hala egingo dute, ziur, beren helburua lortu arte: ohorezko mailan irautea, alegia.

Bitartean gogor darraite lanean, egunero hiru orduz entrenatzen, maite duten hirian maite duten kirolaren ordezkari bat elitean izan dezagun. Horrexegatik, Judimendiko polikiroldegia labe beroa izango da geratzen diren partidu orotan; izan ere, beren eta publikoaren berotasunarekin bakarrik lortu bait daiteke berea eta gurea den ametsa. UPV-Oskarbi taldea egunen batean elitearen eliteraino heltzea.

Azken ordua

A, ze pena! Sei partidu jarraian galdu ostean, Torrelavegako Caja Cantabriaren aurka lortutako garaipenak ez zuen jarraipenik izan Benidormen. Hala ere, azpimarratzekoa da, Benidormen aurka galdu arren, Oskarbi taldeak aurreko astean erakusitako joku onari eutsi egin ziola, eta bere jokua pixkanaka hobetzen ari dela. Estropozuka hasitako denboraldia, dudarik gabe, biguntzen hasi da, eta asteburuero gasteiztarrek zerbaite gehiago egiteko kapaz direla erakusten hasiak dira. Hurrengoan, Las Palomas izango dute etsai, sailkapenean Oskarbiaren atzean dagoen talde bakarra, eta ohorezko mailan irauteko duten zuzen- zuzeneko aurkaria.

Asier Pz. de Karkamo



BA AL DAUKA TALDEAK OHOREZKO MAILAN JARRAITZEKO NAHIKO KALITATERIK?

Kalitatea badauka bai. Gertatu dena zera da: lehenengo hiru partiduak oso talde gogorren aurka jokatu genituela, eta hiru norgehiagoka horiek galtzeak min egin zion jokalariei moralari. Horrexegatik galdu ditugu gero sailkapenean pixka bat gorago egoteko irabazi beharreko zenbait puntu.

DENBORARIK BA AL DAGO ORAIN GALDUTAKO ERREKUPERATZEKO ?

Baietz uste dut. Izan ere, Albacete eta

1. entrenatzailea Txaro Arroyo

Tenerife taldeak aparte utzita, ez dago besteen artean diferentzia handirik puntuei dagokionez. Talde gehienak partidu asko galdu dituzte elkarren artean, eta gertu ditugu sailkapenean.

VOLEY BALL-HIRIA AL DA GASTEIZ?

Ni Valladoliden nengoenean askotan etorri gara hona jolastera. Oskarbi taldea beti egon da goian: bigarren mailan, lehenengoan...

BAINA ESKOLETAN EZ DA VOLEYBALLA IRAKASTEN...

Hori bai, oinarrian jende askorik ez baduzu, gutxi batzu besterik ez dira goraino helduko. Gazteen arteko ligak antolatzeke adina talde ez badago, zaila da haur batek kalitatea lortzea, eta zaila da talde edo klub baten



ZURE BETAURREKOAK 30 MINUTUTAN



Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Zuri gero eta zerbitzu hobea ematen ahalegintzen garela eta, teknologia aurreratuenari esker, zure betaurreko graduatuak 30 minututan* eskeintzen dizkizugu. Eta zerbitzu optikoetan 1 aren garantiarekin, jakina.

(*) enkargu lenteak izan ezik

C.D. Vitoria

50 urte kirola bultzatzen



C. D. Vitoria 1945ko irailean sortu zen, arabar futbolzale batzuek gure hirian zegoen enpresa baten futbol taldearen ardura hartu zutenen. Bi urte geroago talde honek C. D. Vitoria izena hartu zuen eta kirol talde handia bilakatu zen. Lehenengo urteetan, futbolaz gain beste kirol asko egin zitekeen C. D. Vitoriaren barruan, eta bere garairik onenean 15 sail izatera heldu zen. Baina urteak aurrera joan ahala klubeko zenbait talde desagertzen hasi ziren bi arrazoi nagusirengatik: klubean lan egiten zuen jende baten desilusioagatik eta Instituzioen dirulaguntza ezagatik.

Gaur egun klubak lau kirol sail ditu: Futbola, eskubaloia, xakea eta mendia. Futbol sailean, gazte mailatan eta Arabako preferentean jokatzeko duten taldeak ditu eta eskubaloian, estatuko bigarren mailan ari den talde bat. Sail guztiak autonomoak dira eta arduradun bana dute, hala ere, kirol desberdinetan dabilen jendearen artean harremanak onak dira.

Azpiegitura.

Berrogeita hamar urte hauetan klubaren azpiegiturua hobetuz joan da eta 1974.



azken urteotan Arabako kirola sasoi ezin hobean omen dago. Hor dauzkagu, besteak beste, gure herrialdeko talde ezagunak, Taugresek eta Alavesek, lortutako garaipenak; ezin ahaz dezakegu, era berean, Martín Fiz, Konpa, Juanito Oiarzabal edota gimnasia munduko txapeldunak diren Tania Lamarca, Almudena Cid eta Estibaliz Martinezek egindako lan handia ere.

argazkian Martin Fiz C.D. Vitoriako kide zenean sari bat jasotzen

IZEN ETA IZAR handi horien ondoan Gasteizen badaude beste klub batzuk, ilunpean lan egin eta gure kirola bultzatzen dutenak. Club Deportivo Vitoria dugu horietariko bat.

Klub honek 50 urte daramatza lanean, itzalean, komunikabideetako titularretan agertu gabe, baina oso ekintza garrantsiak burutuaz: kirola gazteengana hurbiltzea eta hemengo kirolarieekin lan egitea da beren eginkizun nagusia.

ITZULKA



Diego Mtz de Alava, 7-3, esk.
Tfnoa: 27 44 26
01004 GASTEIZ

ITZULPEN BULEGOA

TXIRRINDUZ

★ Txirringak

★ Txirrindularientzako jantziak

★ Osagarriak



Judimendi etorbidea, 12 • Tfnoa. 28 73 48
01003 • GASTEIZ

Gasteizko euskaldunak non garen?

Bagaren bagare

Bagare
EUSKAL TOKIA
Kutxileria, 62 - 01001 Gasteiz
945 - 25 10 84

urtean udalak eman zizkion lurretan lan ugari egin dute. Gaur egun Urarte izeneko instalazioetan hiru futbol zelai daude, guztiak belarrezkoak. Etorkizunean, behar izanez gero, kirol eraikuntza berriak egiteko lekua soberan dute.

Elkartearen historian garaipen azpimarragarriak aurki daitezke. Besteak beste, hirugarren mailan jokatu zutenean lortutako bigarren postua, nahiz eta gero igotzerik izan ez Burgosen aurka galdu zutelako, eta iaz eskubaloian bigarren mailara igotzea aipa daitezke. Honez gain, kirol elkarte honetatik kirolari ospetsu asko atera dira berrogeita hamar urte hauetan: Fiz (argazkian 1976. urtean sari bat jasotzen) eta Peula korrikalariak, Urbina eta Ocenda futbolariak... eta horregaitik oso harro sentitzen dira klubeko zuzendariak. Dena den une latzak ere bizi izan dituzte. Presidenteak dioenez, instituzioek klub txikiei laguntzen utzi zieten

garia, batez ere, egoera oso larria izan zen.


50. urteurrena

Aurtengoa denboraldi berezia izango da, klubak bere urrezko etzeiak betetzen baititu. Honako hau ospatzeko ekintza ugari antolatu ditu C. D. Vitoriak: Lehenengo Gasteiz-Abetxuko herri krosa egingo da, kros denboraldiaren hasieran; futbol arloan, jokalaria ospetsu izandakoekin, Athletic eta Arabako selekzioaren arteko partidua egingo dute. Horrez gain, hiru euskal talderen arteko txapelketa bat ere antolatu nahi dute eta horretarako Osasuna, Erreal eta Aurrera taldeekin elkarriketak izan dituzte. Saskibaloia dagokionez, Elgorriaga Bidasoa Gasteizera hurbiltzen saiatuko dira.

Eta azkenik, ospakizunak amaitzeko, historian zehar klubetik pasa diren kirola-

riei omenaldia egingo zaie afari batean.

David Alvez



urteurren adi egon ! berriro ere...

BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA bertso jaialdi berezia

URTARRILAK 13 LARUNBATA
iluntzeko 8etan Principal Antzokian

geu gasteiz aldizkaria aldizkariaren **3. urteurrena**

antolatzailea



GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA

laguntzailea

geu gasteiz aldizkaria




GASTEIZ
PIPERMINA
DENDA

arropa
eta
osagarriak



KUTXI, 81



Gariren bakarkako lehen diskoa



GARIK, HERTZAINAK taldeko abeslari ezagunak, bere bakarkako lehenengo diskoa kaleratu du. Azaroaren 15ean Zuloa liburutegian diskoaren aurkezpena egin zuen eta bertan izan ginen GEU Gasteizkoak ere.

Diska Elkar disketxearen ekoizpena izan arren, Berrizko Lorentzo Records-en grabatu da, Garik Aitor Ariñorekin daukan harremanagatik.

Oso lan konpaktoa da; pop-rock sendoa, zuzen-zuzena, letra oso ederrak, eta musika ezin hobea. Emaizta hau lortzeko Garik bere ondoan musikari onak bildu ditu: baterian Victor Celada; bajua, koroak eta teklatueta Mikel Irazoki (Bizkar Hezurra eta 21 Japonesas), eta kitarran Fran Iturbe. Hau gutxi balitz, leteen egi-leen artean, Garik berak egindakoekin batera, Bernardo Atxaga, Jon Maia, Edorta Jimenez edo Bego Arrieta aurkituko dituzu.

Josu Zabalaen kolaborazioa ere azpimaragarria da. Gariren asmoa, hasiera batean behintzat, lan berri honetan Hertzainak-eko taldekiderik ez agertzea zen, orain arte egindakoekin zerikusirik ez zuen diska nahi zuelako.

Gari oso pozik agertu zen lan berri honekin eta oso gustora sentitzen dela adierazi zuen. Garik jadanik hasiak ditu kontzertuak eta urtarilaren 26an Gasteizen ikusteko aukera izango dugu. Benetan gomendagarria.

Toots and The Maytals

taldeak ezin izan zuen Gasteiza etorri

KONTZERTUAREN bezperan heldu zitzaigun berria. Azaroak 10ean, Elefante Blanco aretoan reggae izar batek eman beharreko kontzertua bertan behera utzi zen osasun arazoak zirela medio. Toots and The Maytals taldea zuzenean entzuterik ez genuen izan, zoritxarrez. Albiste txarra musikazale guztiontzat, are gehiago reggae maitaleentzako. Badirudi erritmo beroek ez dutela zorte onik gure hirira etorri behar duten unean. Udan Black Uhuru hirukotearekin gertaturikoa errepikatu da orain Toots and The Maytals taldearekin..

Toots falta izan zaigu, zoritxarrez, aurren Gasteizen luxuzko hirukote bat lortzeko; James Brown udaberrian, Chuck Berry udaran, eta Hibbert udazkenean. Azkenekoak, ordea, huts egin digu. Baina, tira, galdutako aukeraz balia gaitzen reggaearen aita hobeto ezagutzeko.

Reggae-aren aita

Hogeita sei urte pasa dira Toots Hibbertek bere lehendabiziko singlea kaleratu zuenetik. Bere lanari esker reggae, ska edota rock steady-k Karibeko mugak apurtu zituzten eta mundu osora zabaltzen ziren. Garai hartan Tootsen ahotza Eddie Floyd, Rufus Thomas, Al Green edo Otis Reading-enarekin parekatu izan zen.

Estraineko diskak, "Hallelujah" izenekoak, berehala lortu zuen zerrenda jamai-karren lehenengo postuetara ailegatzea. Arrakasta horri jarraipena eman zioten ondorengo beste diska askok. Gogora



dezagun, esaterako, 1966an "Bam-bam" izenpean argitaratu zuten diska, hamasei urte geroago, "Country Man" filmeari erritmoa emateko berreskuratu izan zena, hain zuzen.

Hirurogeigarren hamarkadako kayarekin izandako arazoak ondorio latzak ekarri zizkion jamaikarrari. Bere burua guztiz kalteturik gertatu zen. Hala ere Maytals-en doinuak ez zuen denbora luzerik eman itzalean, eta Rastafari kulturaren igoerarekin batera, zegokion lekura bueltatu zen.

Etapla berri bat ireki zitzaion Leslie



giro atsegina eta lasaia

espezialitatea: etxeko pintxoak

1993ko txapelduna • 1994ko azpitxapelduna

ERRIOXAKO ARDORIK HOBERENAK EZAGUTZEKO AUKERA

ARKA 2 / DATO 27 • GASTEIZ

amo ederrak
aire zabalean

la calle

taberna

Dultzaina, 10

Kong ospetsuarekin topo egin zutenean. Horrekin batera beren kantarik famatuena iritsi ziren: "54-46, That's my Number" (espetxean izandako esperientzia kontatzen diguna), "Monkey Man", "Sweet and Dandy" eta "Pressure Drop" ("The Harder They Come", Jimmy Cliff-ek parte hartu zuen pelikula hartan entzun dezakeguna). Urte haietako dugu ere "Do the Reggay" abestia, reggae hitza aipatzen duen lehenengoa.

1971an kolpe gogorra jaso zuten The Maytals osatzen zuten mutilek: Leslie Kong-en heriotza, alegia. Ezbehar horren eraginez, Byron Lee beraien lehendabiziko produktorearengana jo zuten. Hemendik aurrera diska zerrenda luze bat gauzatuko

The Clash-ek eta Izzy Stradlin-ek "Pressure Drop" berriitu zuten, The Specials-ek "Monkey Man" kantarekin gauza bera egin zuen, baina The Maytals taldeak bizirik jarraitzen zuen eta ez zen iraganeko oroitzapen berpiztua soilik.

1980a urte ahaztezina izan zuten Jamaikakoek. "Just Like That" izeneko abestia eta Lp-arekin oso gora eraman zuten beren musika-tresnetatik ateratzen zituzten doinuaren maila. Urte bereko iralean, zuzenean grabaturiko diska ezin hobea jarri zuten dendatan salgai, eta honekin batera ordurarte inork egin ez zuena lortu zuten: Londres-eko Hammermish Palacen kontzertua eskaini ondoren, hogeitalau ordu besterik ez zuten behar izan hantxe zerturiko grabazioa kalera ateratzeko.

Azken urteetako abestien artean aipa ditzagun adibide gisa "Spiritual Healing" eta "Peace Perfect Peace".

Eragina Euskalerrian

Eta Euskal Herrian zer?. Gure inguruan ere bere tokia topatu du Hibbert musikari handiak. Hemengo taldeek leku bat egin diote beraien erreperitorioetan; Kortatuk "Sarri Sarri" abestia, Potato-koek "Monkey Man" hurbildu ziguten, Kannabis-ek "Just Like That" kanta ederra...

Ez dugu inolaz ere ahaztuko 1993ko uztailean Muskiz-eko hondartzan eskeini ziguten kontzertu bakarra. Gureak, Gasteizkoak, bigarrena izan behar zuen, baina ... Zer egingo diogu, bada! Zorte txarra izan dugu!

Orain, behintzat, badakizu zein diren jamaikar hauek. Hurrengoan etzazu galdu!.

Jose Mari-Txabi Arnal Gil

berri laburrak

hemengoak...

- ☐ Urte amaieran Sociedad Alcohólica-k bere hirugarren diska kaleratuko du. "Ratas" izango du izena eta beraien seilupean agertuko da.
- ☐ Udaberrian, hirugarren aldiz, La Polla Records-koek Argentina bisitatuko dute. Bidaia luzea eta diska berria.
- ☐ Potato talde gasteiztarraren lanak Cd-n. Bi izango dira; lehenengoak "Punky Reggae Party" eta Tijuana In Blue-ekin argitaraturikoa bilduko ditu; bigarrenak "Erre que Erre" eta "Rula" maxia.
- ☐ Azaroak 15etik badugu kalean Exkixuren bigarren lana: "Gaua Heldu Orduko". Eta diska agertzearekin batera aurkezpen jira.
- ☐ 7 Eskale berriro karreteretan. "Bertso Berriak Pobreziari Jarriak" Lp-ak ez du indarrik galdu.
- ☐ Gabonetarako Ehun Kilo-ren bigarren lana zure eskuetan: "Esaiek...". Euskal Herriko heavya ez da eten.
- ☐ El Ultimo de la Fila Gasteizen "La

Rebelión de los Hombres Rana" izeneko diska aurkeztuz. Abenduak 3an Mendizorrotza Polikiroldegia lekuko.

- ☐ Eta jarraian gure hirian gauzatuko diren beste zuzeneko batzuk. Guztiak Elefante Blanco aretoan:

Abenduak 1goa Therapy.
Abenduak 8an Deicide
Abenduak 15ean Vargus Blues Band.
Abenduak 27an De Mala Fé.

...eta hangoak

- ☐ "A Ixena!" izeneko diskak aragoieraz abesten duten hamabost talde batzen ditu. Estilo ezberdinak eta Aragoiko hizkuntza bultzatu asmoa. Mallacán, Ixo Rai!, La Orquetina del Fabirol edota Labordeta-k parte hartzen dute proiektu honetan. Oso gomendagarria.
- ☐ The Rolling Stones-ek iraganari begiratzuz egindako "Stripped" diskan era akustikora moldatutako abesti zaharrak topatuko ditugu. Kanta ezagunak, baina ez betikoak.

dute eta aspalditik gogoan zuten asmoa errealtate bilakatu zen: beren musika mundu guztira zabaldu zen. "Funky Kingstown", "In The Darka", "Reggae Got Soul" eta "Pass the Pipe" izan ziren 70. hamakadan kaleratutako Lp-ak.

Reggaeak, gehienbat Bob Marley-ri esker, erabat errespetagarria izatea lortu zuen egun haietan eta bere eragina musikari askorengan islatu zen.

Punk-Rock, Ska eta Reggaearen arteko sekulako nahasketa sortzen ari ziren, eta orduko talde askorentzat erreferentzia garbia izan ziren Toots and the Maytals.

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2-7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

deportivos

AZOKA

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19

Lagun berriak egin euskaraz mintzatuz



gasteizen abian egongo da laster “mintzalaguna” egitasmoa. Euskara ikasleei mintzatzeko aukera ematea du helburu. Donostian hainbat urtez aurrera egin ondoren GEU elkarteak gure hirira ekarri du ideia. □

DUELA HAINBAT URTE Bagera Donostiako euskaldunen elkarteak, euskaltegietakoa ikasleek kalean euskara erabiltzeko duten zailtasunaz ondo jabetuta, mintzalagunaren egitasmoa abian jarri zutela. Elkarteko zenbait kide aritu ziren horretan lanean eta saiakera batzuen ostean, “Tandem” izenekoak osatzen aditua zen pertsona baten laguntzaz eta metodo-

logia horretan oinarrituta “Mintzalaguna” egitasmoa finkatu zuten.

Atzerriko mintzairak irakasten dituzten akademia eta ikastegi batzuek “Tandem” izenez ezagutzen den metodoa erabil izan dute beren ikasleak hizkuntza berrian murgilarazteko. Hizkuntza desberdinak menperatzen dituzten bi edo hiru lagun arteko trukea egitea da metodo honen helburu nagusia. Era horretan, esaterako,

Aizu lagun,...

- Aizu lagun, ba al dakizu mintzalaguna badatorrela?.
- Mintza... zer? Nor arraio da hori?
- Ez duzu ezagutzen? Hitzak berak esaten du zer den; min-tza-tzen-den-la-gu-na. Mutu gelditzen ez den horietakoa, alegia. Eta euskara hutsean, noski.
- Horrela bada, mintzalagun asko ditut nik.
- Bai, arrazoi duzu, zuk behar bada bai. Baina zer deritzozu euskaltegiaren gogotsu ari diren ikasle horietaz? Ikasgelan euskara ikasi bai, baina gero kalera irteterakoan euskaldunik topatzen ez dutelako, lotsatiak direlako, ohiturarik ez dutelako edo dena delakoagatik ez dute euskaraz hitzegiten.
- Bai, hori ere egia borobila da.
- Bada, honetarako da mintzalaguna: euskaldungai horiek trebatu eta euskal giroan murgiltzen laguntzeko.
- Baina nola lor daiteke hori?
- Oso erraza da. Zuk mintzalagun bat eduki nahi baduzu, telefonoa hartu eta GEU elkartera deitu (inor ez balego bertako erantzugailuan zure izena eta telefono zenbakia utz itzazu). Hori eginez gero, GEU elkarteak zurekin harremanetan jarriko dira.
- Hori egitea nahikoa da mintzalaguna lortzeko?
- Elkartekoek informazioa eskaini eta galdetegi bat emango dizute bete dezazun, eta horren arabera zure mintzalagun euskalduna edo, nahi izanez gero, mintzalagun- taldea aukeraturiko zaizu.
- Hortik aurrera hartuemanetan hastea besterik ez duzu egin behar.
- Hori besterik ez bada oraintxe bertan noa telefonoz deitzera...
- Aprobetxa ezazu honako aukera eskertuko duzu eta.

1887an sortua • Jose Ramon Agiriano

restaurante • jantoki
DOS HERMANOS
madre vedruna, 10
13 29 34 - 13 44 46

Peru 8
22 60 50

Jose Mardones 8
26 35 40

Arana 30
25 24 00



Euskal Herria
jatorrizko bertsioan!

anima
zaites

ækⁿ

saiatu. Ez dago, beraz, arestian aipaturiko elkarrekiko hizkuntza-trukerik. Gainontzerakoan, mintzalagunak eta euskara ikasleak, norberaren hobby edo zaletasunak, esperientziak eta abar trukatzeko aukera izango dute.

Egitasmo berri honetan parte hartu nahi duenak galdeketa fitxa bat bete beharko du, bertan bere datu pertsonalak, ordutegia, zaletasunak eta antzeko beste zenbait datu zehaztuaz. Datu guztiak bildu ondoren, euskaldunek eta euskara ikasleek osaturiko bikoteak, hirukoteak, taldeak sortuko dira eta elkartzeari ekingo diote aldizka (astean behin, bitan...). Azkenik, partaideen arteko elkartzealdiak eta ikasleen hizketa-emaitzak ebaluatuko dira.

Argi dugu ezer berririk ez dugula asmatu. Donostian emaitza onak izan dituen esperientzia hona ekarri eta gure artean abian jartzea da gure asmoa. Egun, Donostiako Bagera elkartearen, mintzalagunarena ondo errotutako egitasmoa da. Geu elkartekook Gasteizen ere antzeko

zerbait lortzeko esperantza dugu, premia haundia daukagu eta.

**mintza
laguna!**



Floridako altzorra !

35

adaka M
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

CHIMBO jatetxetik:

Kepa eta Itxasorekin hizketan



PASA DEN HILEAN Kutxi kalean zehar hasitako ibilbideari jarraituz, Chimbo jatetxera hurbildu gara oraingo honetan, gelditu bat egiteko asmoz.. Chimbo jatetxea aski ezaguna da kutxizaleen artean. Jatetxe jator honek bi nagusi ditu: Itsaso eta Kepa. Biek in solasaldian aritu gara.

Noiz sortu zen Chimbo jatetxea?

Chimbo jatetxea gaur egun ezagutzen dugun bezala duela lau urte jaio zen, guk hartu genuenean. Dena den, lehenagotik ere hemen otorduak zerbitzen zituzten. Etxeko menuekin eta egiten zuten lan..

Chimbo izena aspaldikoa da, ez da?

Bai, izen horrekin duela 40 urte ikaztegi bat ireki zuten hemen, gero txatarra

KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO
C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-bainua, sauna erraldoia) • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrear inharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia...

Azaroan eta abenduan zure aisialdiari berebiziko bizitasuna emateko aukera izango duzu, horretarako Vital Kutxak erraztasun guztiak zure esku jarriko ditu eta. Oraingo honetan, bi motatako ekitaldiak eskaintzen dizkizugu: abentura kutsukoak eta ekintza nautikoak, zein baino zein erakargarriagoa eta gozagarriagoa. Erne, bada, segidako datuei eta eforri lehen bait lehen Vital Kutxara izena ematera honako ekintza hauetan.

Caja Vital  **Vital Kutxa**

kirol-abentura

Puenting-a abenduaren 17an 5.000 pta

PARTE HARTZAILEAK: 15 urtetik 45 urtera bitartekoak. 15 urtetik beherakoek gurasoen baimena beharko dute.

IZENA EMAN: ekintzak asteburuetan egingo direla kontutan izanda, aurretiaz eman behar da izena, aurreko astelehenetik aurrera, hain zuzen

Caja Vital Kutxaren Telecaja Joven txartelaren jabeek %15eko deskontua izango dute izena emateko orduan. Bestalde, izena emateko eta ekintzei edo ikastaroari buruzko argibide gehiago jasotzeko, Postas Pasabidea-General Alava kaleko Caja Vital Kutxako bulegora jo behar da goizeko 9etatik arratseko 8etara.

biltegi bat egon zen eta orain, momentuz, jatetxea dugu. Aldaketa asko baina beti izen berbera: Chimbo. Beraz, leku hau oso ezaguna da gasteiztar helduen artean.

Zer motatako sukaldaritza egiten duzue zuek Chimbon?

Lantzen dugun sukaldaritza euskal sukaldaritza tradizionala da, baina ikutu berri batzuekin. Adibidez, gure kartan ahatea daukagu. Ahatea oso hegazti preziatua da eta jatetxe guztietan aurki dezakegu. Duela urte batzuk Frantziatik Euskalerrira ailegatu zen eta orduan sortu ziren lehenengo basetxeak. Zaharrenetarikoa "Martiko" dugu. Hegazti honetan den-dena aprobetxa dezakegu, baita lumak eta mokoa ere.

Ligatzeko asmoz datorrenari zein menu prestatuko zenioke?

Hasteko entsalada bat: ondo hornitutako entsalada polit eta ikusgarri bat. Jarraian piper beteak, piper guztiak desberdinak

direnez plater hau ikusgarria izaten delako. Edateko Errioxako ardoa aterako nuke eta postrerako kiwi gatzatua.

Gaur egungo krisi egoerak eraginik badu zuenean?

Eragina begi bistakoa da. Orain hona etortzen denak aurretik presupestoa eskatzen dizu, batez ere gazteek. Lehen berriz, hori ez zen gertatzen. Ikasleak diruz eskas ibiltzen direnez, gutxiago etortzen dira hona baina, dena den, jende asko etortzen da.

Zein da zuk frogatu duzun platerik arraroena?

Tempura-Sushi izeneko plater japoniar bat. Erlijioarekin lotuta dago eta aldi berean plater nazionala da. Arrain gordina eta arroza ditu osagai nagusiak. Hasieran zapore nahasketa hori arraroa egiten zaizu, baina gero marisko zapore antza du.

Gustora jarraituko genuke Kepa eta

Itsasorekin hizketan baina sukaldariak erositako janarien ordainketak egin behar zituztela eta bukatu beharrean egon gara. Ea, bada, hurrengo batean, patxada handiagoz etorri eta afaltzera ez bada bazkaltzera geratzen garen!

Karlos Fdz de Betoño



• AGENDA • ABENDUA • AGENDA • ABENDUA • AGENDA • ABENDUA • AGENDA

**abenduaren 13an,
asteazkena
Iluntzeko 8etan Villa
Suso Jauregian**

**Gaur Gurekin zikloaren
barruan:**

**Anjel
Lertxundi**

**bere literatur-lanari buruz
hitz egingo digu**



**GEUrekin
mendira**

irteera

goizeko bederatzieta Txapela
tabernaren aurrean. Autobusez
joango gara. Txartela • 400 pezeta

itzulera

3,30ak aldera

ibilbidea

Murua-Gorbeia-Murua
Oraingoan izena eman behar da.
222153 telefonora deitu, hama-
biak eta ordu biak artean. Azken
eguna: ostirala, abenduaren 15a.

**GORBEIA
abenduaren 17an**



**BIKOTE
TABERNA**

Julian de Apraiz 5 Tfnoa: 22 86 39

Berezitasunak: bikotitoak eta etxeko
hanburgesak

**jo ta ke
TXAPELARRI
TABERNA
kutxilleria 83**

"ARGOS"
ZURE BURUA
EZAGUTZEKO
TOKIA

Astrologi aholkularitza
Kinol eta terapia-masajea
Bete-beteko terapiak
Astrografia
Emeflexoterapia
Hastanoak

Gasteizko hiribidea 89 (atzealdea)
Tfnoak: 24 26 71 eta 22 93 29

OLENTZERO Superstar


GABONETAN DEUKOZ POKIK!...
OLENTZERO IAZ TRISTE ZAGOEN
...BISITA BAT EGINGO DIO.



EUPARANTZA BERRI-
AN DAGOELA ESAN
DIDATE.



¿, LAGUN,
ZE MUZ
HABIL?



Diputación Arabako

¡EPA TXEROKI,
ZATOZ ONA!



KONTXO, AUR-
TE GAUZAK HOBEA-
GO DINDAZ, ¿?
AURTEN BAI,
BIZITZA MODERNOAN
GAUZA MODERNOAK EGIN
BEHAR DIRA...



ORAIN EZ DIDATE
ERRETZEN UZTEN
(ITXURA GORDE
BEHAR DUT),
BAINA PATROZINA-
TZAILEAK SOLDATA
SEGURUA
EMANGO
DIT



ESKERRIK ASKO; ETA ZIUR
EGON, ZURE AHOLKUA JARRAI-
TUKO DUDALA... AGUR
LAGUN!




GAUR EGUN, EDOZEIN
GAUZA EGITEKO "SPONSORRA"
BEHAR DA... UFF, LAN ASKO
DAGO... TORI, OPARITXO BAT
ETA OSPA... IKUSI
ARTE!



ORAINGOAN
EZ BALDIN BARDU
DOWANIK SABELA
BETETZEN...





Arabak aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



**Arabako
Foru Aldundia**

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	

